Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

172 zenbakia
2016 **iraila**

Prest!

BERBETAN: MADMUASEL LORE MUSIKARIA, IRAKASLEA ETA IKASLEA

ERREPORTAJEA: ANOTHER SIDE OF ZORROTZAURRE **BARKUA:** KOLDO OLABARRI

TOKIKOM

166-167-168-169-170-171-

Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal, 42
Deustua 48014

EDO HONA
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

Goiko Alde Kultur Elkartea
Bihotz Alai Folklore Dantza Taldea
bekoerri kultur elkartea
Deustuko Ikastola Gurasoak
berbaizu euskaraelkartea
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura
Viceconsejería de Política Lingüística
Mikeldi Dantza Taldea
Deustuko Jai Batzordea
Pare Hautsi Ditzagun Kateak
Doneperiaga Auzo Elkartea
deustuko gazte asanblada 1981 2010
Ai ernai Deustua
erraldoien ondalan konpartsa
xut Kultur ekintzak Propuestas culturales
Gilkitxaro
Intxixu Ikastola
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao

aurkibidea

Maitane Muñoz eta Irati Antepara	**Iritzia**	4
Tamia Quima Morales Sanchez	**Gurera etorria**	5
e erreportajea *Another side of* Zorrotzaurre		6
Txantxiku udalekuetan	**Udalekuak**	10
Deustuko herriaren ondarearen galera	**Behin batean**	12
Deustuko Arraun Taldea	**Artikulua**	14
b berbetan MAD MUASEL LOREkin		16
Lehen obren bedeinkazioa, 1950	**Irudiak berbetan**	21
harkua bete herba		24
EUSKARA Ozen Euskaraz		
SAREKADA Klik eta klik		
PINTXODROMOA Izeki taberna		
KULTUR TXOTX Berta Alcalde eta Enare Muniategi		

Erriberako bizilagunontzat, eguneroko bizitza bertan egiten dugunontzat, etorkizunak etorkizun izaten jarraituko du, 'inoiz iristen ez den eta iristea espero ez den' hori, hain zuzen ere.

Izen artistikoa du Madmuasel, bere eguneroko bizitzan Lore den arren. Ez du abizenik eman nahi hainbeste maite duen intimitatea gordetzeko.

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
www.facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

32 gradu eta buru-berokia jantzita

Uda beroa izan da aurtengoa, 30 gradu baino gehiago egun askotan; hala ere, Euskal Herrian zehar emakume askok buru-berokia jantzi dugu erasotzaileei aurre egiteko. Bilboko jaietan ere hala egin dugu.

Beste behin emakume bat erasotua! Protokoloa aktibatzen da, kontzentrazioa Arriagan, kazerolada txosnetan eta 00:00ak heltzean, beltzez jantzitako ehunka emakumek konpartsako kamiseta gerrian estuki lotu eta buru-berokia janzten dugu. Ordua heldu da!

Manifestazioari ekiten diogu, amorruz, minez beteta. Beroa ahazten zaigu eta bekokitik jausten zaizkigun izerdi tantak igarri ere ez ditugu egiten; amorruak, ezinegonak eta gorrotoak ez digute uzten beste ezer sentitzen.

Asko izan arren, buru-berokien anonimatuak bat bihurtzen gaitu, subjektu bakar, otso-aldra. Estalki horren azpian Ni izateari uzten diot… Maitane, Miren edo Bernarda ere izan naiteke. Ni eta Zu kontzeptuak nahasten eta malgutzen doaz GU sendoa bihurtzeko.

Amorrua gorpuzteko momentua heldu da eta gure egin dugu; emakumeok manifestazioaren aurrean, beldurra aldez aldatuko dela ozen oihukatuz. Ez dugu berriro beldurra sentituko etxera bueltatzean, gaua gurea ere bada eta. Orain erasotzailea beldurtzeko unea heldu da; gu erantzuteko prest gaude.

Bilboko kaleetan zehar garrasi eta aldarrikapen argia entzuten da, ulu sendo bat … Erasorik ez erantzunik gabe!

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea

Eta berriro klasera...

Hainbat ikasle moduan, aurten Batxilerra amaitzeari ekin diot eta neuk ere sentitu ditut kurtsoa hasi aurreko kezkak, urduritasuna eta intriga. Sentimendu horiek, hala ere, lagundu naute kurtso honetako lehenengo egun luze hauek gainditzera.

Uda laburra izan da, baina irakasleek aurretik dugun ikasturtea ez dela batere erraza izango argi utzi digute.

Klaseak hasi eta berehala, behin eta berriro errepikatu digute haien aurtengo kezka bakarra: 'Selektibitatea' edo 'Errebalida'. Baina ikasleon helburu nagusia ez al da ikastea? Badirudi gaur egun ikasteak ezer gutxi balio duela. Oraintxe bertan zenbaki bat besterik ez gara sentitzen. Argi dago ikasle mota asko dagoela: asko ikasten dutenak, ikasketak lasai hartzen dituztenak, ikasteaz nazkatuta daudenak…

Nire ustez, ikasleok presio gehiegi daukagu. Nik neuk adibidez, oraindik ez dakit unibertsitatean zer egin nahi dudan eta horrek gero eta urduriago jartzen nau.

Inguruko lagun gehienek erabakita daukate, baina oraindik dudatan gabiltzanok denbora kontra dugu. Agian gure barnean jakin badakigu zer izan nahi dugun, eta horregatik, ikasturte osoa aurretik daukagu deskubritzeko.

Tamia Quima Morales Sanchez

Jatorria: Cayambe, Ekuador
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: Ikaslea eta administraria

“Sinesgaitza zirudien Agirre lehendakariaren etorbideko ibilgailuetara ohitzea”

Testua:
Lur Mallea

Kitxua zara?
Mestizotzat naukate, baina ni kitxua indigena sentitzen naiz, nire erroak kitxua baitira.

Noiz etorri zinen Ekuadorretik Deustura?
Hamar urte nituenean. Hasieran ez nuen ondo pasa, batez ere hiru neba-arreben artean txikiena ni naizelako. Denok etorri ginen. Hori baino lehen gure aita Donostian bizi zen.

Bizitzaren erdia baino gehiago Deustun eman duzu.
Nire adinkideek bertakotzat naukate. Nik esan arren, ‘Ekuadorrekoa naiz’, eurek ‘ezetz’ esaten didate. Pertsona helduek, berriz, kanpotartzat naukate. Esan beharra daukat, inoiz ez dudala arrazismorik sentitu. Batere. Ezta nire familiak ere.

Goitik beherako tomatera zara orduan?
Bai. 13 urtetan ez gara Deustutik mugitu ere egin. Etxez eta kalez baino ez gara aldatu.

Zelakoa izan zen egokitzea?
Hizkuntza dela eta, La Salle kolegioan hasi nintzen ikasten. Ondo hartu ninduten. Zorte handia izan dut. Izan ere, Deustuko La Salleko irakasle bat nire herrian, Cayamben, La Sallek duen ikastetxean egona zen, eta bazuen gure bidaiaren berri. Berak prestatu zuen nire helduera. Iristean, ikaskideek harrera egin zidaten. Ez dut egokitzeko arazorik izan. Beste herrialde batzuetatik etorritako zenbait pertsonak esperientzia txarra izan dutela jakin badakit.

Zerk harritu zintuen etorri berritan?
Hiriak eta hiriko kaleek. Gu nekazal gunetik gentozen. Cayambe Ekuadorreko mendi aldean kokatuta dago. Landa gunetik hirirako jauzia handia izan zen. Etxebizitza batean bizitzeak edo pisu batean ez dauka zerikusirik. Sinesgaitza zirudien Agirre lehendakariaren etorbideko ibilgailuetara ohitzea.

Ekuadorren egoera soziopolitikoa hobetu dela eta, zenbait etorkinek bueltatzea erabaki dute. Ezagutzen duzu kasurik?
Gure etxean ez dugu Ekuadorreko beste familia batzurekin harreman handirik izan. Ez dakit zergatik den. Agian bertakoak gure kulturara gehiago hurbildu direlako gure herria bera baino. Aitak aipatu digu familiak osorik itzuli direla Ekuadorrera.

Ekuadorrera itzuli zara?
Bitan izan naiz han. Nire amarekin. Aldaketa handia izan zen, nire etxea nire familia izan arren. Dezente kosta zitzaidan moldatzea. Hasieran Ekuadorrera bizitzera bueltatu nahi nuen, ez nekien ondo noiz, unibertsitatea baino lehen edota ostean. Orain, berriz, Deustun ondo sentitzen naiz. Gainera, nire familia Ekuadorren daukat, baina hurkoa hemen. Bizitza hemen egin dugu. Gustura gaude.

Ekuador Etxeak egoitza du Deustun. Zelako lana egiten du?
Oso ona. Pertsona migratzaileen elkartea da. Ez da hainbeste jai eta ospakizunetan oinarritzen. Besteekin alderatuta desberdina da. Komunikabide gehienek erakusten ez dituzten irudiak erakusten dituzte. Manifestazio, protesta eta hamaika jardueraren berri ematen dute sare sozialen bitartez. Egiazkoagoa den errealitatea azaltzen dute.

Euskara ere irakasten dute Ekuador Etxean.
Izena emanda egon nintzen, baina denbora faltagatik utzi nuen. Guztiz damututa nago. Hurrengo urtean itzuliko naiz. Hemen bizi behar badut euskara ikasi nahi dut.

ANOTHER SIDE OF ZORROTZAURRE

Testua
Nerea Olaziregi
Eneko Herran
Lekunberri eta Jose Morales Belda

Argazkiak
PREST!

Dagoeneko, Bilbo Handiak hartzen duen eremuan behinik behin, oso zabalduta dago Zorrotzaurre idiliko baten irudia. Aukeren lurraldea, etorkizun distiratsu baten promesa, iraganeko ereduak eta garaiak atzean uzten dituen aurrerapen geldiezin gisa ulertutako garapena. Hori guztia sinbolizatzen duen totem ikoniko baten antzera aurkezten digute Zorrotzaurre. Historia hori entzungo duzu kontalari ofizialistak dituzten itsasontzietan txango bat egiten baduzu. Historia hori bera irakurriko duzu zenbaitentzat "munduaren hiriburua" den gure hiri honen birmoldaketa postindustrial eredugarriaren gailur moduko horri hain leku handia eskaini dioten egunkari eta aldizkari ugarien hemerotekak arakatzen badituzu.

Hamar urte luzez egindako propaganda instituzional eta mediatikoak (egia esateko, ez dakit gaur egun bereizketa hori egitea merezi duen) arrasto sakona utzi du bere burua miresteko berezko joera duen hiri baten subkontziente kolektiboan. Dagoeneko inork ez du begiratu nahi erakusten diguten irudi horretatik harago, erakusten diguten guztia zoragarria baita, ezinago *beautiful*, guztiz *wonderful*... Etorkizun miragarri horretarantz goaz mugarriz mugarri, hau da, maketaz maketa, planoz plano, epeka (azpimarratu beharra dago orain arte ez dutela epe bat ere bete). Eta, horrela, gezurren eta erdizkako egien artean (marketinak eta paperak edozer onartzen dute), bi zubi izango dituen uharte batera iritsi gara. Zubitik zubira aurrera... edo atzera.

Hemen kontatuko dudan historia, ordea, oso bestelakoa da, eta ez duzu aurkituko propaganda liburuxketan edo udalak nahiz haren menpeko erakundeek egiten dituzten txostenetan, haien helburu nagusia kea salduz dirulaguntza oparoak jasotzea edota Europak banatzen dituen dirutza mardulak eskuratzea baita. Idilioak edo xarmak *Zorrotzaurre Creativo y la Isla del Conocimiento* du izena. Historia honen izenburua, aldiz, *Zorro-Fraude Kreatimo y la Isla del TodoCemento* da.

Baina, lehenik eta behin, koka gaitezen, horretarako ere diskurtso ofizialetik ihes egin beharra baitago. Izan ere, "memoria historikoa" eta horrelako hitz potoloak barra-barra erabiltzen dituen arren, diskurtso ofiziala memoriaren edo sustraien adierazle izan daitekeen edozein ezaugarri ezabatzen tematu da hasiera-hasieratik. Leku

bat aukeratu dute etorkizuna (edozein etorkizun) bertan kokatzeko, eta egin duten lehenbiziko gauza leku horren izena aldatzea izan da.

Ondo prestatutako eta hobeto bideratutako azpikeria baten bitartez, nahaste izugarria sortu eta Erribera auzoak bere betiko izena galtzea lortu dute. Lehenik, Aste Nagusiko kontzertuez baliatu ziren horretarako (Aste Nagusia abagune bikaina baitzen amarrua hedatzeko): egun batetik bestera, ordura arte Botikazarreko zabalgunea izan zena Zorrotzaurreko zabalgunea izatera pasatu zen. Horren aurrean, gogorarazi beharra dago auzoaren izena Erribera dela (Deustuko Erribera, Deustuibarra). Orain dela 200 urte baino gehiago sortu zen eta 1925era arte Deustuko Elizateko auzoa izan zen (urte horretan Bilbok elizatea anexionatu zuen deustuarren borondatearen kontra). XX. mendearen erdialdean, azkenean dartsena izango zen kanal bat ireki zuten, Erribera gainontzeko Deustutik bananduz. Gainera, Erriberako Euskalduna auzoa desagertu zen eta jende askok beste leku batera bizitzera joan behar izan zuen azkenean ezerezean edo erdizka gelditu zen obra baten ondorioz. 80ko urteen hasieran, berriz, ontzigintzaren sektorea desagertzearekin batera eta krisiaren aitzakiarekin, Erribera zehaztu gabeko etorkizun baten zain geratu zen, egunen batean bertan egingo omen zutenaren menpe, luzerako eta epe jakinik gabe denboran geldirik.

Garai hartan hasi ziren batzuk zonalde osorako Ekintza Plan Integral batez hitz egiten. Ordurako, asmo hori zerabilten buruan frankismoaren osteko lehen urteetako handimandiek eta politikari sasi-jakintsuek (desarrollismoaren ustezko modernotasuna haren existentzia bezain zaharra da). Agindutako etorkizun horren zain, Erriberan bizi garenok 30 urte baino gehiago daramatzagu bazter utzita, gure auzoa orain garatzeko aukera oro ukatzen zaigularik: auzoko azpiegituretan egin beharreko hobekuntza guztiak berehala abiaraziko omen zituzten eta beti gerorako uzten zuten Ekintza Plan Integral horren menpe geratzen ziren.

Hala ere, gure aldetik dena ez da kexa eta arrangura izango... Ostrazismo horrek aukera eman zigun inguru paregabe batean bizitzeko, bertatik bertara geneukan hiriko abiadura zorotik at, lasai eta gure erritmoan. Aukera izan genuen komunitatea sortzeko eta hiri handi bati baino gehiago herri txiki bati dagokion tankeran (elkar)bizitzeko. Auzoak gabezia ugari zituen arren, gu eroso sentitzen ginen bertan, zeren eta, nolabait, lekua gurea zen gu berarenak ginen neurri berean. Kantak dioen bezala, "*Qué bonito ser de Deusto y vivir en la Ribera...*" (nahiz eta ordurako ez zen ez itsasontzirik ez gaileterarik geratzen).

Mende honen hasieran indarra hartu zuenetik, 'Zorrotzaurre' marka hori guztia suntsitzera etorri da, auzoaren izena desagerraraztearekin batera. Gainera, suntsitze lan hori garai 'berri' hauetan ohikoa den moduan egin da, hau da, marketinaren eta propagandaren bidez; salmentarako erabiltzen den diskurtsoaren eta eskaintzen den produktuaren artean kontraesan nabariak egon daitezkeenik onartzen ez duen planifikazio baten bidez. Ondo ikasi dute publizitatea ez dagoela errealitatearen mugen menpe eta, beraz, inolako disimulurik gabe erabiltzen dute haren hizkuntza, zeren eta, azken batean, hiria saldu eta erosi ahal den produktu bat besterik ez baita beraientzat. Eta, gainera, ze arraio... Bilbokoak gara, eta kito!

Orain, biziberritzearen arloko logika ororen kontra doan eta negozioaren logikarik gordinenari (*business is business*) erantzuten dion Urbanizazio Proiektu bat onartu dute, eta aho beteka aldarrikatuko dute beste mugarri bat dela egunen bukaerara arte luza daitekeen mugarri sorta amaigabe batean. Berriro esango digute proiektu bikaina dela, eta azken emaitza deitzen dioten horren hainbat fotomuntaketa jarriko dizkigute begien aurrean, baina ez dute esango etorkizuneko uhartearen erdialdeko zati handi bat (etxe batzuk eta biztanleak ere badauden lekua) dokumentu horretatik kanpo geratu dela eta, beraz, bertako lanak askoz gehiago atzeratuko direla, eremurik andeatuena eta esku-hartze baten premiarik handiena duen lekua izan arren. 'Mugikortasun iraunkorraz' hitz egingo digute, behin eta berriro azpimarratuz uhartea iparraldetik hegoaldera zeharkatuko duen bide ardatz bakarra egongo

"Auzoak gabezia ugari zituen arren, gu eroso sentitzen ginen bertan, zeren eta, nolabait, lekua gurea zen gu berarenak ginen neurri berean"

dela eta tranbia jarriko dutela garraiobide publiko gisa, baina inork ez du esango ardatz hori egitea eta, beraz, tranbia ibiltzea ezinezkoa izango dela bukaeraren bukaerara arte, dokumentu horrekin abalatzen duten obra programazio burugabearen ondorioz. Bi zubiak etorkizuneko uhartearen mutur banatan diseinatu dituzte, ibilgailuen zirkulaziorako autonomia bermatzeko eta proiektua negozio bolumenaren lehentasunen arabera garatuko dela ziurtatzeko (bertan egingo dituzten eraikin berriez ari naiz).

Bide batez, berriro aipatuko dituzte 'auzoaren memoria industriala gordeko duten' 20 pabiloiak, baina ez dute esango orain arte erabili den (eta oraindik ere erabiltzen den) politika pabiloi horiek beren zoriaren menpe uztea izan dela. Horren ondorioz, haietako asko zeharo itxuragabeturik eta hondaturik daude, eta orain arte ez dute ezertxo ere egin hondamendi hori eragozteko. Gainera, kontuan izan behar da pabiloi gehienak urbanizazioaren azken faseetarako utzi diren lekuetan daudela... Ez dago ulertzerik nolatan ez dieten eman erabileraren bat, aldi baterako bada ere eta helburu bikoitz bat lortzeko gutxienez: pabiloiak kontserbatzea (baldin eta garai batean izan zirena gogoraraziko duen zerbait mantentzeko benetako asmorik badute) eta bizitza apur bat ematea auzoko lekurik abandonatuenei eta biztanleriarik urrienekoei. Nolanahi ere, badirudi lotsa ematen diela beraiek izateak pabiloi horiek eraisteko agindua emango dutenak. Nahiago dute denboraren joana eta ziur aski gertatuko diren lapurretak arduratzea horretaz.

Aitzitik, ez daukat inolako zalantzarik nabe industrialak eta erabilera berriak aipatuko dituztela, baina 'Sormenezko Irla' delako horretaz hitz egiteko soilik. Izan ere, 'Sormenezko Irla' esaten dioten hori proiektuaren elementu nagusietako bat da, itxaronaldi luze hau ('bien bitarteko aldia') entretenigarriagoa egiteko eta etorkizuneko bezeroei begira prezioak igoarazteko diseinatua. Eredu eta diskurtso hori planetako mila lekutan klonatua izan da, eta, gure kasuan behintzat, gezurren eta erdizkako egien gainean eraiki da. Hala, besteak beste, bertan behera utzitako nabeak berrerabiltzen ari direla esaten digute, kasu gehienetan gezur biribila den arren. Horrekin batera, sormenaren aldeko apustua egiten ari direla aldarrikatzen dute, baina oso zaila da hori sinestea, ez baitute inolako aukerarik eman pikotxetik salbatuko ei diren pabiloietan sormena lantzeko, lehen aipatutako helburu bikoitza bete zezakeen arren. Horren ordez, 'sormena' gaur egungo etxebizitzen inguruan inokulatu da, bertan bizi den komunitatearen erdigunean txertatu da. Eztarria urratu arte oihukatzen dute horrek bizitza dakarkiola auzoari, baina ezkutatu egiten dute ez dituela pittin bat ere biziberritzen bertan behera utzitako pabiloiak edo leku andeatuak (eta, zoritxarrez, horrelako leku asko daude gaur egungo penintsulan). Horren eragina lehendik bizitza zuen eremura mugatzen da, bertako espazioak okupatuz eta erritmoak aldaraziz. Agian, 'sormena' horregatik da hain erakargarria hiria eraldatzeko plangintza diseinatu eta gauzatzen dutenentzat: interesgarria zaie gentrifikazio geldoa eta atsegina bultzatzen duelako, subliminala bezain eraginkorra.

Era nabariago batean, planifikatzaileen eta artea ekintzailetza gisa ulertzen duten guru berrien arteko lankidetza gaizki disimulatuak edo instituzioen, eraikuntza enpresa handien eta esperientzia estereotipatuen diseinatzaileen arteko *co-working* horrek oso helburu zehatza du: etorkizuneko uhartearen barnealdea amu erakargarria edo balio aktiboa izatea uhartetik kanpo (Deustuko eta San Inazioko beheko aldean) eraikiko diren lehen etxebizitzekiko interesa pizteko. Labur esanda, gaur egun sormenaren arloko ekimen horiek guztiak baliagarriak dira 'Zorrotzaurre' markaren bozgorailu gisa. Etorkizunari begira, aldiz, baliagarriak izan daitezke proiektatu duten mini-hiri berrian ezinbestekoa izango den aisialdi eskaintza guztia 'alde zaharrean', etxabeetan eta gaur egungo etxebizitzen inguruan kokatzeko.

Nolanahi dela ere, hiri klonikoaren abangoardia horrek eta bata bestearen atzetik datozen mugarri horiek guztiek gauza bat gogorarazi nahi digute: nola edo hala, 'etorkizuna hemen da jadanik'. Oso mezu irensgarria da lekua ezagutzen ez dutenentzat edo noizean behin soilik bertaratzen direnentzat, eta auzokideen artean ere harrera ona izateko behar bezain atsegina da. Errealitatea, ordea, egoskorra da. Egunotan, Bilboko Udalak behin-behinean onartu du Urbanizazio Proiektuaren lehen zatia (bere fase eta desfaseekin), eta aurkeztu diguten dokumentua orain arte esan duguna berrestera dator: Erriberako bizilagunontzat, eguneroko bizitza bertan egiten dugunontzat, etorkizunak etorkizun izaten jarraituko du, 'inoiz iristen ez den eta iristea espero ez den' hori, hain zuzen ere.

AZKEN ENPRESAK URRIAN BOTAKO DITUZTE

Zorrotzaurre Plana martxan hasi aurretik ehundik gora enpresa zegoen Erriberan, gaur egun gelditzen diren apurrei alde egiteko hilabeteko epea eman die Batzorde Kudeatzaileak. Carrocerías Mulei horietako bat da.

Luis Mari Muñozek 40 urte baino gehiago darama Erriberan kotxeak konpontzen. Semearekin batera egiten du lan eta urrirako alde egin behar dutela esan diote. Haserre eta kezkatuta dago, lokal berria topatu dute Erandion baina negozioa bertara eramateko trabak baino ez dituzte. "Une honetan arazo larri baten aurrean gaude –adierazi digu– hemendik bota nahi gaituzte, eta toki berrian sartzeko oztopoak ditugu". Toki aldaketak berriz zerotik hastea ekarriko die, izan ere, gaur egungo bezero gehienak ingurukoak baitira.

Erriberako tailerraren truke eman dieten diruarekin ezinezkoa da baldintza berberak dituen lokala erostea, eta kreditu handi batean sartu beharko dira. "Eman

digutenaren hirukoitza edo laukoitza eskatu behar dugu orain bankuan. Bizitza suntsitu didate lana kendu eta kalean utzi nautelako", dio haserre. Beste lokal bat eskatu diote planeko Batzorde Kudeatzaileari, baina Pablo Otaola gerenteak esan die legeak ez dituela horretara behartzen.

Gauzak horrela, Luis Marik etorkizuna beltz ikusten du. Ez da bakarra. Enpresak utzi behar dituzten gehienak etsituta daude. "Hemen gertatu dena lotsagarria da –azpimarratu du– ni hiria berritzearen alde nago, baina ez ni eta nire inguruko enpresa familiar guztiak kalean uzten".

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE · RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

TXANTXIKUAK AZEDORA JOAN GARA UDALEKUETAN!

Urtero bezala, maletak zein motxilak bainujantziaz gain, gogoz ere bete genituen txantxiabentura berria bizitzeko uztailaren 18tik 29ra.

Testua: Txantxikuko begiraleak
Argazkiak: Txantxiku

Aurten, belaunaldi aldaketa txiki bat izan dugu, 'puretek' begirale gaztetxoagoen esku utzi dituzte udalekuak. Hasieran urduri eta beldur apur batekin hartu genuen erronka baina orain arte laguntzaile izandakoek prestaketa lanetan asko lagundu gintuzten.

Azkenean, urte osoan zehar irrikaz itxarondako udalekuak heldu ziren eta 80 ume zein gazte inguru bildu ginen astelehen goiz hartan Azedora eramango gintuen busaren zain. Aurpegi gehienak ezagunak ziren eta ezezagunak zirenak laster lagun onak bihurtu ziren. Abesten emandako bi orduko bidaiaren ostean, Azedoko kanpinera heldu ginen, bi astez gure etxea eta jolastokia izango zen euskaldunez beteriko kanpinera. Abentura berria hastear zegoen!

Udalekuetan zehar ez genuen aspertzeko tarterik izan. Egun tematikoek mozorrotzeko aukera eman ziguten: pirata eguna, Azedoko gazte eguna, zinema eguna, alderantzizko eguna… Inguruak ezagutzeko ibilaldiak ere egin genituen. Txikienak Los Arcosera joan ziren eta bidean zehar Nafarroako beste zenbait herri txiki ezagutu zituzten. Ibilbidea neketsua izan bazen ere, merezi izan zuen, izerdi guztia Los Arcoseko igerilekuan uzteko aukera izan baitzuten. Gaua herriko frontoian igaro eta hurrengo egunean kanpinera itzuli ginen. Gaztetxoek, ordea, Murietara egin zuten ibilbidea eta hauek ere nekea errekan hartutako bainuarekin konpentsatu zuten.

Horrez gain, ekintzarik arrakastatsuenetarikoa 'Urbasabentura' izan zen, zuhaitz eta

soken artean ibili baikinen tximinoen antzera. Gaubelek ere euren lekua eduki zuten: Alderantzizko ezkutaketa, Hi Haiz Hi Artista, beldur gaua, sua, masaje tailerra… dantzatzeko, abesteko, barre egiteko, piropoak elkarri esateko, lagun berriak egiteko, negar egiteko, besarkadak emateko eta bihurrikeriren bat egiteko ere aukera izan genuen. Eta badakizue zer den onena? Ekintza guzti horiek euskaraz egin genituela eta bi astez euskara hutsean bizi izan garela!

Nafarroa aldean emandako bi asteak azkar pasatu ziren eta bueltarako ordua heldu zitzaigun. Udalekuak hilabete batera lu-

Begiraleok ere umeek bezain beste gozatu genituen udalekuak, zoragarriak diren ume eta gaztez inguratuta egon baikara. Urteetan zehar aurrera daramagun proiektu honen lanak bere fruituak ematen dituela ikusteak erabat asebetetzen gaitu eta lanean gogor jarraitzeko indarrak ematen dizkigu. Hezkuntza ez formala euskaraz gozatzeko espazioa sortzera goaz!

Hala ere, Txantxiku ez da udalekuen ostean amaitzen, ikasturte berria hastera goaz eta milaka ekintza ditugu zuentzat prestatuta, beraz, animatu eta etorri gurekin euskaraz ondo pasatzera! IKU, IKU, IKU… TXANTXIKU!!!

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

DEUSTUKO HERRIAREN ONDAREAREN GALERA (1805-1838)

Herriarenak izan ziren Deustuko lur eremu zabalak eta herriko egitura gehienak Lege Zaharrean. Oso denbora gutxian galdu ziren guztiak. Galdu diogunean, saldu esan nahi dugu, pribatizatu alegia, herriari ezarritako zama fiskalak hala behartuta.

Testua: Hektor Ortega
Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma

XVIII. mendearen bigarren erdialdean, hazkunde beteko aroa izan arren, herritar xeheen egoera ekonomikoa gero eta larriagoa bilakatu zen. Hazkundeak merkatari eta lurjabe handien patrikak diruz bete zituen, baina baserritarrak, artisauak eta noblezia txikiko atal batzuk gero eta makurrago bizi ziren, zordun eta pobreturik. Lekuan lekuko udalek ere igarri zuten estualdia, gehienek zorrak metatu baitzituzten garai hartan. Deustuak herri-lur batzuk salgai atera zituen –Ibarrekolanda, adibidez– bere zorrak kitatzeko. Herri-lur haiek eraso latza sufritu zuten XVIII. mendean, ugazabek –herritarren %90 maizterra zen– beretzat hartu zituztelako, indarraren indarrez.

Mendearen amaieran, Lege Zaharraren krisiak gerra ziklo suntsitzaile eta odoltsura eraman zuen Euskal Herria. 1795 eta 1839 bitartean lau guda izan ziren gure herrian, txikiak batzuk, handi-handiak besteak, galgarriak denak. Gerra haiek hildakoak, arpilatzeak (frantsesek 1808an egindakoa, adibidez), kanoikadak, suteak eta, oro har, suntsiketa ekarri zuten Deustura. Baina, horrez gain, zama itzela eragin zieten herriei, armada guztiak herriaren lepotik bizi izan zirelako, anoak, bagajeak eta zergak noiznahi eskatuta. Karga makala berez zorrez josita zeuden herrientzat!

Zama itogarria bilakatu zenean, herriek dirua eskatu behar izan zuten eta, maileguak ezin ordaindurik, herriaren jabegoei erreparatu behar izan zieten. Orduan galdu ziren Hego Euskal Herriko herri-lur gehienak. Baita Deustukoak ere. 1805-1839 bitartean deustuarrek euren ondasunak saldu behar izan zituzten zorrak kitatzeko eta, batez ere, armadek eragindako gastuei aurre egiteko.

Bitarte horretan Deustuak bere ondare zerrendari begiratu eta kasik dena saldu behar izan zuen. Herri-lurretan, 1810-1811 bitartean 71.000 estatu (garai hartako azalera neurria) lur enkantean salgai paratu behar izan zituen. Gehienak (44.000 estatu) Jose Antonio Olaldek erosi zituen. Lursail haiek ogenak ziren,

Deustuko plaza 1894an: Herriko Etxea eta, alboetan atxikita, eskola



ibai ondoko eremu lehortuak alegia, nekazaritzarako oparoak. Ogenak urtero alokairuan ematen zituen Udalak, herritarren artean.

Ogenak ez ezik, etxeak saldu zituzten deustuarrek. 1805ean bertan Elorrietako etxe nagusia saltzeko ahalegina egin zuten, Deustuan zegoen Armada espainolaren gastuei aurre egiteko (1804ko matxinadaren ostean etorritakoa) eta Bretainia Handiaren aurkako gerrara gizonak bidaltzeko. Orduan ez zen eroslerik azaldu, baina 1808an berriro ahalegindu ziren. Elorrietako baserriarekin batera, Zorrotzaurreko batelaren etxea, Luzarra mendia eta Ibarrekolandako San Migel ermita ondoko etxea atera zituzten salgai urte hartan.

Prozesu gorabeheratsua izan zen. Batzuk arin saldu zituzten, baina beste batzuk ez. Zorrotzaurrekoa, esate baterako, Basabetar jauntxo familiarena zen 1816an. 1823an, Hirurte Konstituzionalaren amaieran, herriak baimena eskatu zuen San Migel ondoko etxea eta Elexaldeko taberna salgai paratzeko.

Eskola ere salgai

1838an, karlistada gori-gori eta Deustua Espainiako armadaren mende zegoela, herriaren ondasunen zerrenda ondorengoa zen: Udaletxea, hari atxikitako eskola, eskola ondoko soloa eta udaletxeko plaza, haratega (Kaban, gerraren ondorioz zeharo deseginda) eta bide bazterretako lur txataltxoak. Gainerako guztia salduta zegoen. Kinka larri hartan, herriak eskola ondoko soloa, plaza zati bat eta eskola bera jarri zituen salgai.

Eskola, guk dakigula behinik behin, ez zuten saldu. Eskola ondoko soloari Eskolasolo esaten zioten deustuarrek eta hura bai saldu zen. Lemonauriatarrek erosi zuten. Bertako zati batean –beste lursail batzuekin bat egin da– Deustuko frontoi ospetsua eraiki zuten urte batzuk geroago.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

artikulua
Deustuko Arraun Taldea

DEUSTUKO ARRAUN TALDEA: "ARRAUNA SUSTATZEN JARRAITU BEHAR DUGU"

Kontxako Banderako bi jardunaldietako denborak zenbatuta, zazpigarren postuan eman dute amaitutzat Deustuko Arraun Taldeko neskek euren lehen denboraldia. Oro har, emaitza "espero baino hobea" izan da Borja Rodrigo klubeko ordezkariaren esanetan, "izan duten oihartzunagatik eta egindako lan onagatik".

Testua: PREST!

Argazkiak: Deustuko Arraun Taldea / Iñaki Suarez Calleja / Juan Luis Martinez Cobo

Arraun denboraldia bukatuta, hilabeteko oporraldia izango dute bai neskek bai senior mailako mutilek. Urrian itzuliko dira entrenatzera. 2016/17ko denboraldian arraunla helduen gehiengoari eutsi nahi lioke Borja Rodrigok. Pozik dago klubeko ordezkaria. Nesken traineru bat osatu ahal izatea "puntazoa" izan dela dio. "Batik bat, eurentzat –neskentzat– lehen ezin zutelako traineruen diziplinan lehiatu". Izan ere, Bizkaian "ez dago oso orekatuta" arrauna. Horregatik bai Bilbon bai Bizkaian "arrauna sustatzen jarraitu behar dugu".

"Historikoa" izan da Bilboko talde baten parte-hartzea Kontxako Banderako finalean. Are gehiago denboraldi honetan estropadetan lehiatu den emakumeen traineru bizkaitar bakarra izan delako Deustukoa. Hori dela eta, "jendeak bat egin du eurekin". Taldekideen gaztetasuna kontutan harturik, 18-19 urtekoak dira hainbat arraunlari, "oso gazteak", "ondo baino hobeto" lan egin dute. Fernando Beperet entrenatzaileak "bloke bat osatu behar izan du batel, trainerilla eta traineruko arraunlariak batuz eta teknika irakatsiz. Emaitza "espero baino hobea izan da". Gipuzkoako Emakumezkoen VII. Traineru Ligan (gonbidatu gisa parte hartu dute) zazpigarren postuan geratu dira, bederatzi talderen artean, eta IX. Emakumezkoen Kontxako Banderan ere zazpigarren, zortzi ontziren artean.

Kontxako lehen jardunaldian "debut ona" egin zuten *Tomatera*-ko neskek. Seigarren postua eskuratu zuten Caboko tripulazioarengandik "sei segundora". Bigarren jardunaldia, berriz, okerra izan zen eta zazpigarren helmugaratu ziren. Tripulazioaren lehen urtea izanik, balorazioa oro har baikorra da.

Mutilak iaz igo ziren KAE-1 Ligara. Denboraldi bikaina osatu ostean laugarren postuan bukatu zuten. Aurten, berriz, seigarren. Emaitza hobea espero zuten arren, "ez dago gaizki", dio Borja Rodrigok. "Ezin dugu presaka ibili batik bat San Migule Ligara igotzeko ontziekin lehian ari garelako. Ez gaude talde indartsuen artean; gure helburua eustea da".

Klub osasuntsua

Senior mailako arraunlariez gain, kategoria askotan ordezkaritza duen taldea da Deustukoa. Aurtengo udan, esaterako, Bizkaiko Arraun Federazioak etorkizuneko arraunlariei bideratutako Bizkaiko Energia izeneko liga berrian, txapeldun izan da Deustuko taldea, Gazte mailan. Zuzendaritzaren aburuz, "oinarri ona dugun ikur da hori, maila onekoa, gainera. Lasai gaude gurea harrobia duen kluba baita. Osasuntsu gaude jarduera eta aniztasun handia baitugu".

Ikasturte berrian lan asko egiteko

10-17 urte bitarteko kategorietan eta Arraun Eskolan hasi dute jada ikasturte berriaren prestaketa. Aurreko ikasturteetako ume eta gazteak ez ezik asko izan dira lehen aldiz gerturatu direnak Deustuko Erriberako pabiloira. "Ikusgarria izan da", Borja Rodrigoren esanetan. Komunikabideetan izandako "oihartzunak" lagun asko "erakarri ditu" klubera. Berri ona da, "Bizkaian oro har lan asko baitago egiteko; asko hobetu behar dugu".

deustuarrauntaldea.com

berbetan

MAD MUASEL LOREkin

Musikaria, musika irakaslea eta musika ikaslea

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Iñigo Azkona

“Mikrofonoa hartzean emakumeek

Intimitatea eta ezagutza nahi ditu, biak, eta horrek zalantza sortzen dio. Zalantza argitu bitartean erabaki du betaurrekoekin babestea eguneroko Lore Mad Muasel dansall musikariarengandik.

magia daukate”

Leku askotan sartuta duzu muturra. Zerk definitzen zaitu?

Egiten dudanak. Musika egiten dut. Zer naizen, orduan? Musika naiz. Musika klasikoa eta garaikidea egiten ditut. Une honetan Pedagogia Musikala ikasten nabil Musikenen. Liriko eran kantatzen irakasten didate teknika ona izateko. Kantu irakasleak nahi du nire ahotsa zorrotzagoa izatea eta nik baxuagoa izatea, gustuko dudan *dansall* estiloan kantatzeko. Beraz, bai musika klasikoa bai garaikidea naiz.

Musika bizitzeko modu gisa aldarrikatzen duzu. Zergatik?

Kuban egon nintzen eta han behin eta berriro errepikatzen zuten “*hija, las penas se bailan*”. Eta hori egia da. Arazoren bat daukadanean edo lo egin ezinda nagoenean musikarekin lasaitzen naiz. Batzutan erritmo baten gainean idazten dut, eta horrek hobeto sentiarazten nau. Musika nire terapia da, nire psikologoa.

Irakasle moduan eskarmentua daukazu.

Magisteritza Musikalean graduatu nintzen, eta 18 urte nituenetik musika irakasle lanean ibili naiz musika eskoletan. Musika irakastea eta aldi berean Mad Muasel proiektuarekin musika egitea dira nire bizitzako eginkizunak. Munduan zehar kontzertuak ematea nahi dut nire musikarekin biziz.

Nor da Mad Muasel?

Barruan daukadan lehoia. Nire *alter ego*-a.

Dansall musika estiloa egiten duzu. Zelakoa da zehazki?

Dance (dantza) eta *hall* (kontzertu-areto) hitzen elkarketa da *dansall*. Jamaikan sortu zen eta handik mundu osora zabaldu da. Abestiek dantzatzeko erritmoa dute eta hitzetan eguneroko bizimodua azaltzen dute. Kantariek euren bizitzaz hitz egiten dute. Jamaikako mezuak ez du nirearekin zerikusirik, han bizimodua bestelakoa delako. Jamaikarrek batez ere titi, ipurdi eta larrua jotzeari buruz abesten dute.

Eta zure abestiek zeri buruz hitz egiten dute?

Nahi dudanari buruz. Gaur, adibidez, abesti bat egin dut bikotekidea ez izateari buruz. Ez du axola bikotekiderik ez baduzu. Nire lagun asko, emakumeak batik bat, triste egon ohi dira bikotekide gabe. Ez da ezer ere gertatzen bakarrik egonez gero eta, gainera, sekula ez gaude bakarrik, hortxe dugu gure burua. Beste abesti batean *womanpowah* gaia aipatzen dut.

Zer da *womanpowah*?

Mikrofonoa hartzean emakumeek daukaten magia. Mutilak izaten dira ia beti mikrofonoa esku artean dutenak. Horregatik emakume batek mikroa izateak publikoaren arreta deitzen du. Desberdintasunak arreta deitzeko gaitasuna duelako. Geroz eta emakume gehiago gara.

Geroz eta gehiago hobe?

Gauza ona da geroz eta emakume mu-

“Munduan zehar kontzertuak ematea nahi dut nire musikarekin biziz”

▷▷ SAKONEAN

“Musikarekiko aurreiritziek sutan jartzen naute”

Zelan dago musikaren panorama?
Dansall musika geroz eta gehiago entzuten da. Irratian ere entzun daiteke, baina irratian *tropical house* deitzen diote.

Zerk sutzen zaitu?
Musikarekiko aurreiritziek. Jende askok esaten du “*el reggaetón es lo peor*” hainbat letra oso matxista direlako. Orokortzeak sutan jartzen nau. Musika mota guztiak onak dira. Norberak hautatu behar du gustuko duen lirika. Jendearen pentsamendua aldatu behar da. Nire emanaldietarako bi *reggaetón* erritmo aukeratu ditut, eta badakit askok zer esango didaten. Gustuko ez badute ez dezatela entzun eta kito.

Zer aholkatuko zenieke musikazale gazteei?
Musika egin nahi badute egin dezatela. Hasieran zaila da hastea, ez baitakizu zelan egin. Mugituz gero, kontzertuetan adibidez, zu bezalako jendea ezagutuko duzu, elkarlanean gauzak errazagoak dira. Jarrai ditzatela euren ametsak.

sikari gehiago izatea. Mugimenduak parekidea izan behar du gizon eta emakumeentzat. Estatu mailan mikroa hartzen duten emakumeen kontaktu bila hasi nintzen Interneten. Pentsatzen jarrita lauzpabost baino ez zitzaizkidan bururatzen, eta 45 helbide elektroniko aurkitu nituen. Harrigarria da. Arreta jarriz gero, emakumeen mugimendu handia dagoela ohartzen zara, baina aparte dago.

Bat egin duzu #SinMujeresNoVoy egitasmoarekin. Zer da?
Musika jaialdietako kartelak aztertzen dituen egitasmoa. Festibal gehienetan ez dago emakume musikaririk edota bakarra dago. Horrelakoetara ez joan. Egoera hori da orekatu behar dena.

Aste Nagusian Las Tea Partyk lagun giroan emandako kontzertua da emakumeen mugimenduaren adibide?
Hasi nintzenetik ibili naiz emakume DJ

baten bila. Gau hartan, Europa Parkeko eszenatokian, inflexio-puntua ezarri genuen. Atzerantz begiratzean, bi emakume DJ zeuden. Emakumearen eguna izan zen. 'Hau errepikatu behar dugu' esan nien, eta errepikatuko dugu.

Womanpowah proiektua da errepikatzeko duzuen hori?

Bai, elkarlanean hasi dugu *womanpowah* proiektua. Lorea Argarate eta biok erritmo bat sortu dugu eta estatuko panorama osora zabaldu dugu. Madriletik deitu digute azaroaren 12an kontzertu bat emateko. Womanpowah bezala joango gara Las Tea Party, BitterSweet eta Mad Muasel. Ea zelan funtzionatzen duen.

Kaixo konpartsaren eszenatokian ere abestu duzu aurtengo Aste Nagusian.

Jendea adi zegoen, dantzatzen, nire mezuei erantzuten. Oso sentipen polita da. Eta ez naiz profeta nire herrian.

Non zara profeta?

Mexikon. Arianna Puellori koroak egiteko lagundu nion Mexikora, eta han nengoela konturatu nintzen jendeak nire musika ezagutzen zuela. Facebooken, esaterako, ia nire lagun gehienak mexikarrak edota Latinoameriketakoak dira. Han fanatikoagoak dira.

Abesti asko egin dituzu zure hirugarren lan luzerako ('Oh La La', 2010 - 'Bomba ácida', 2012). Noizko lan berria?

Urdulizko T4 estudioan ibili naiz. Novatok erritmo asko egiten ditu, eta gustuko ditudan erritmoak hautatu eta testuak idatzi ditut. Une honetan ekoizle frantses batekin ari naiz lanean. Oso soinu freskoa du, musika bizia da, saxoa, tronpeta… Bi album kaleratzeko beste abesti grabatuta ditut, baina nahasketa falta dute. Nahasketaz arduratuko den ekoizlearen zain nago. Ez dakit lan berria noiz kaleratuko dudan, ez baitago nire esku. Ez dut presarik. Orain, formakuntza unean nago.

Ezagun izan nahi duzu, baina ez duzu osperik nahi. Dilema latza.

Mexikotik etorri nintzen ospea gustuko ez dudala pentsatuz. Musikatik bizi nahi dut, baina metroan liburu bat irakurri nahi dut inork ezer esan gabe. Baina ezinezkoa da. Ezin duzu beti gogotsu egon zaleekin argazkiak egiteko. Egin behar duzu, zure lana delako. Horregatik daramatzat betaurrekoak kontzertuetan. Maskara bat eramatea pentsatu nuen, baina ezin dut maskararekin arnasa ondo hartu. Ikasi behar dut batbatean norbaitek 'Mad Muasel argazki bat mesedez' esaten didanean txipa aldatzen.

Eszenatokian lehoia, eta eszenatokitik kanpo lotsatia zara.

Unearen arabera lotsatia naiz. Pertsonaia asko ditut nire barruan. Horietako bat da Mad Muasel. Gainerako asko ez ditut ezagutzen oraindik.

Zelako eszenatokiak dituzu gustuko?

Leku handiak eta publikoarengandik hurbil dauden eszenatokiak. Eszentokitik jaitsi nahi badut jaitsi ahal izatea gustatzen zait. Entzuleak hurbil izatea eta aldi berean espazioa izatea. Leku txikietan xehetasun guztietaz ohartzen naiz, eta arreta galtzen dut.

"Unearen arabera lotsatia naiz. Pertsonaia asko ditut nire barruan"

TAILERRA

Gometxa proiektua martxan

Ume bakoitzak jolasetik eta ipuinetik abiatuta bere sorkuntza prozesua eraikitzea helburu du Gometxa proiektuak. Janire eta Ane Soldevillak sortu duten proiektuan hilean gai bat jorratuko dute eta hiru saio egingo dituzte ipuin baten egiturari jarraituz, saio bakoitzean arte-diziplina bat jorratuz: sarrera (asmakuntza plastikoa), korapiloa (gorputz adierazpena) eta amaiera (soinu sorkuntza). Astean ordu eta laurdeneko saio bat egingo dute eta guztira hiru gai jorratuko dituzte: urrian *otsoa* (beldurra), azaroan *tiktak denbora* eta abenduan *ispiluak dir-dir* (errealitatea). Lehen saioa urriaren 24an egingo dute Mullerenean eta 4 eta 6 urte arteko umeek parte har dezakete (gehienez, 12ko taldea osatuko da). Ikastaroak 60€ balio du Berbaizukideentzat eta 65€ besteentzat.

BERBAIZU

Urteurrena prestatzeko hitzordua

2016an Deustuari Euskara Dariolak eta Berbaizu euskara elkarteak 25 urte betetzen dituzte. Zifra borobila dela-eta, udagoienetik aurrera ospatuko dute eta hainbat ideia dituzte: Berbaizukide Eguna antolatzea, Ipar Euskal Herria Deustura ekartzea edota jaietan euskararen gainean zer edo zer egitea. Urriaren 12an 18:00etan batzar irekia antolatuko dute Mullerenean eta zuen ideiak, ekarpenak eta iradokizunak entzutera joango dira, urteurrena aurkeztu bitartean. Gogoratu, urriaren 12an 18:00etan Mullerenean. Informazio gehiago 94 447 10 42 telefonoan eta berbaizu@euskalnet.net helbidean.

JAIA

Herriko taberna berritua

Ikasturte hasierako jaia antolatzea erabaki dute Deustuko Herriko tabernako kideek irailaren 22 eta 23an, besteak beste, epaiak epai "libre eta egurra ematen" jarraitzen dutela adierazteko, herritarrentzako "benetako gune erreferentea" izateko eta udaren ostean tabernan egin dituzten berrikuntzak ezagutarazteko. Terraza berritu dute lorontzi handia kenduz eta bi eserleku luze jarriz. Mahaiak eta aulkiak ere berritu dira. Barruan, botilak eusteko apalak aldatu dituzte. Berrikuntzetan, batik bat, egurra erabili dute, Herriko tabernaren bereizgarria. Aldaketa gehiago ere iragarri dituzte. Esaterako, ostegunetako ikasleentzako afariak eta ostiraletako bokata eta plater konbinatuak. Hortaz, ikasturte berrian jateko eskaintza zabalagoa izango da.

Paul Abasolo futbolariaren aurkako elkarretaratzea

Portugaleteko futbol taldeak partida izan zuen SD Deustoren aurka irailaren 3an. Portugaleteko jokalaria da hainbat sexu erasogatik salatua eta zigortua izan den Paul Abasolo. Deustuko mugimendu feministak deituta hainbat lagunek elkarretaratzea burutu zuten Etxezuri zelaian "erasotzaileak babesten dituena konplizea dela" salatzeko. Mugimendu feministako kideek adierazi dutenez, "diotenez" Abasolo "bergizarteratuta dago, eta ez dugu bere aurrekari penalengatik diskriminatzeko eskubiderik", baina erasotutako nesken eskubideak "non geratu dira" galdetzen dute, "dirutruke barkatu badute". Ez daude Abasolo "barkatzeko eta ahazteko prest", ezta Abasoloren inguruko lagunen jarrera ere: "Ez dugu onartzen erasotzaile bat futboleko ikur bilakatzea, ez dugu onartzen jendarteari transmititzen zaion mezua emakumeok erasotzea hainbesterako ez dela izatea. Erasotzaileak babesten dituena konplizea da".

Urtea: 1950

Txema Luzuriaga

Lehen obren bedeinkazioa

Ikasturte honetan Deustuko Kanaleko eraikuntzaren zenbait argazki ekarriko ditut txoko honetara laster guztiz irekiko dutela baliatuta. 1950eko abuztuaren 11n gertatu zen, 1925ean Bilbok Deustu anexionatu ondoren gertatuko hainbat gorabeheren ostean, oker deituriko Deustuko Kanaleko obren hasierari ekin zioten (lehen-lehen xedea itsasadarra desbideratzea izan arren). Oker diot, izan ere, ez zen guztiz zabaldu eta kai moduan geratu zen. Horrela bada, lehen argazki honetan, inaugurazio ekitaldia ikus daiteke eta bertan Jose Maria Fernandez Ladreda Herri-lanetako ministro jaun txit gorena, Luis Martin de Vidales Portu eta Itsas Gaietako zuzendari jaun txit leinargia eta Bizkaiko hainbat agintari. 1950ean abiatu ziren lehen etapako obrak Bilboko artzapeza Domingo de Abona jaun txit leinargiak bedeinkatu zituen.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



Zer aldatuko zenuke lehendakari izango bazina?

Inkesta: Nerea Olaziregi

Mari Tere
Deustu

Hiriak goitik behera aldatuko nituzke umeen eta emakumeen beharrizanak asetzeko. Hirigintza antolaketarako plan berri bat egingo nuke.

Aimar
Deustu

Loreak jarriko nituzke kaleetan eta parke berri bat egingo nuke jolasteko.

Arantza
Deustu

Gune berde gehiago jarriko nituzke eta eskolak zabalduko nituzke asteburuetan umeek jolasteko aukera izan dezaten.

Iratxe
Deustu

Arte-sorkuntza eta sareak sustatuko nituzke azpiegiturak baino gehiago.

Pili
San Inazio

Emakumeak izatea gobernuburu. Horrek aldaketa handiak ekarriko lituzke.

Unai
Deustu

IBI zerga, Ondasun Higiezinen Zerga, aldatuko nuke baina kontrara, igo beharrean murriztu.

>> EUSKARA

BAGATOZ!

Urtetako barealdiaren ostean, Deustu eta inguruetan gazteak antolatzen hasi dira: Pare, Gazte Asanblada, kuadrillen loraldia… Deustuko gazteria aktiboa eta inplikatzen den seinale. Are gehiago, aktiboa, inplikatua eta euskalduna dela esatera ausar gaitezke.

Testua eta irudia: Ozen Euskaraz

Itsaso horretara jaio da Ozen Gazte euskara taldea, Deustuko gazte euskaldunen artera. Done Petri inguruko kaleetan luze ibili ostean, gazteria euskaldunarentzat euskarazko aisialdi gutxi zegoela ondorioztatu genuen, baita gazteak eremu formaletik kanpo euskaraz egitera animatzen zituen eskaintza urria ere. Umeentzako euskarazko aisialdiaren ostean, gazteak itsaso horretara itsasargien erreferentziarik gabe ateratzen zirela. Euskara nahieran eta nahi beste egiteko kaia izan nahi du Ozenek. Gure itsasargiak ez du argirik, euskara ozeneko seinaleak baizik. Entzuten al dituzu?

Ez da horretarako lehen saiakera, ezta inondik inora. Lehen ere egon ziren Zirrara eta Kar-Kar euskaratik eta euskaraz gazteentzako mila ekintza proposatzen. Agian gogoratuko dituzue. Filosofia bera jarraituz sortu da Ozen: gazteei interesa dakizkiekeen ekintzak proposatu nahi ditu auzoko gazteen artean euskaraz hitz egiteko, gune naturala sortzeko.

Zuetako batzuek dagoeneko sumatuko zenuten Ozenen presentzia; Deustualdeko hamar gazte, lehen begiradan elkarren arteko erlazio handirik gabekoak, hainbat adinetakoak, euskaraz garagardo bat hartzen edo Bilboko Aste Nagusian zuen edalontziak betetzen, baita bakarka ezin dela euskaraz bizi aldarrikatzen ere.

Baina dena ez da jaia eta parranda, Ozenek euskaraz hitz egin nahi duten guztiak gonbidatzeko eta animatzeko moduko ekintzak egin nahi ditu: kontzertuak, garagardotegi batera bisita, euskararen aldeko aldarrikapenak… Hara! Horiek jaiak ez badira, badute jai kutsua! Baita Deustuko historian eta lurretan zehar ibilaldiak, beste gazte euskara talde batzuekiko harremana eta elkarlana, gune autogestionatuetara bisitak, dokumentalak eta mahai inguruak, bururatzen zaizkizuenak… laburbilduz, gazteei interesa dakiekeen edozer. Baldintza bakarra: euskaraz. Eta aisialdikoa, noski!

Ekainean hasi zen Ozen apurka-apurka martxan Berbaizuren inguruan, baina lehen sustatzaileek espero ez zuten indarra hartu du denbora gutxian Ozenek, eta laster ekintza potenteak antolatzen hasiko da. Adi egon! Zalantzarik gabe, ez dira barne gozamenerako izango, baizik eta auzoarentzat. Beraz, hurbiltzera, gozatzera, ekintzak iradokitzera, aktiboki parte hartzera... gonbidatu nahi zaituztegu. Ez izan lotsarik!

Ondorioz, Deustualdeko gazte euskalduna bazara eta euskarazko aisialdiaz gozatu nahi baduzu, zatoz guregana. Euskara sustatzeko taldeekin elkarlanean ibili ohi gara han eta hemen, baita tabernetan eta sare sozialetan ere euskaraz gozatzen eta zuretzako aisialdi ekintzak prestatzen. Deustuko beste gazte taldeekin batera, auzoa gune aktiboa, inplikatua eta euskalduna dela erakustera goaz!

Egin dezagun Ozen Euskaraz!

http:// sarekada

zientzia.info

Uztarketaren fruitua, bertsozientzia

Kultura Zientifikoko Katedraren eskutik, *Jakinduriek mundue erreko dau 2016* ekitaldian izango da irailaren 24an, Bizkaia Aretoan. Zientzia, komunikazioa eta bertsolaritzaren arteko uztarketa emanaldiak hiru bertsolari eta lau zientzialari elkartuko ditu.

vimeo.com/94635004

Deustuko burrunbak

Bestelako kulturak, bizitza ikusteko bestelako moduak, horiek guztiek lekua dute *Deustuko burrunbetan* izeneko dokumentalean. Deustu auzoan elkarrekin bizi diren kultura guztien zenbait adibide jaso dituzte Identibuzz komunikazio sozialeko proiektuan parte hartu duten gazteek. Bideoan Deustuko etorkinaren profila erakusten dute: emakume latinoamerikarra, pertsona nagusiak zaintzen diharduena.

NEUMÁTICOS MITXEL

JADA MARTXAN!!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]

Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com

CONFORT auto

HANKOOK masters

ZORTE ONEKO BOLADA

Xoxy izeneko neurona zoroa antzeztuz eta "sorpresa diren" beste pertsonaia batzuk gorpuztuz Koldo Olabarri aktore deustuarra taula gainean ikusteko aukera izango da 'Chichinabo cabaret' ikuskizunean irailaren amaieran eta urrian zehar Pabellon 6en.

Testua: Lur Mallea - **Argazkiak:** Koldo Olabarri

"Kristoren erronka da" Koldo Olabarri aktore gaztearentzat *Chichinabo cabaret*-ean parte hartzea. Jon Casamayor aktorea ordezkatuko du aurrerantzean. "Nik ez dut entsegu arruntik izan gainerako aktoreek bezala". Gainera, obra "zaila" da, "oso koreografikoa eta korala" baita. Hori dela eta, erronka.

Felipe Loza obraren testu egile eta zuzendariaren "konfidantza" lortu du Koldok. Kabareteko pertsonaia bat ordezkatzeko aktore bila zebiltzala, beren-beregi Koldorengana jo zuen Felipek, lan zaila zela jakitun, eta harro sentiarazten du horrek.

Pabellon 6era hurbiltzen diren lagunak hipnosi saio baten lekuko izango dira. Izan ere, Chichinabo doktoreak gazte baten buruko neuronak aztertzen ditu. Gaztea 'nini' bat da. Ikasten ez duena eta lanik egiten ez duena. Buruan dituen neurona guztien artean, zoroena Xoxy izenekoa da. Koldok antzeztua. Beste pertsonaia bi ere gorpuzten ditu Koldok, baina nahiago du azalpen gehiago ez ematea publikoari "sorpresa" ez zapuzteko.

Hamaika dantza eta kantu taularatuko dituzte Sestaoko Alejandro protagonistak, Doraemonzale amorratua, bere neuronek eta tarteka agertzen diren hainbat pertsonaje bitxik.

Gidoiak egungo gaztediaren zati bat islatzen du. Kabaretak berea duen kritika sozial dosi eta guzti. "*Si te quitan libertad mueve tu culito, si te quitan las pensiones mueve tu culito* kantatzen dugu amaieran. Azkenean zuzenean aipatzen dugu obran zeharka esandakoa. *Cabaret Chihuahua*-k bazuen ikutu politikoa eta honek ere badauka. Hori da antzerkiaren ezaugarri interesgarrienetakoa", Koldoren iritziz. "Protesta eta kritika egiteko eskaintzen duen zeharkako modua, konturatu gabe publikoari iristen zaiona".

Aste Nagusiarekin batera bosgarren urteurrena bete du Pabellon 6ek eta era berean seigarren denboraldia hasi du. Bertako gazte konpainiako kide izan da sei hilabetez Koldo. Aktore gazteei lan aukera bat ematea du xede konpainiak. "Orain baino lehen ez zegoen horrelakorik. Ramon Bareak Bilboko Udalaren eta Lanbideren laguntzak lortu zituen arte aktore gazteek lan kontratua eta soldata izan genezan urte erdiz. Gazteok *amateur* izan behar dugula dirudi, baina gu ere profesinal izan gaitezke. Barearen arabera, gazteei daukaten garrantzia eman behar zaie".

Konpainiaren sei hileko lanaren emaitza *Romeo y Julieta* antzezlana izan zen. Urtarrilaren amaieran estreinatu zuten. Hilabete eta erdi luzatu ziren funtzioak. "Oso obra polita da. Gainera, Barearen zuzendaritzapean primeran joan da dena. Pabiloia ia gauero beteta zegoen, eta hori jende askorentzat sopresa izan da".

Ez da ohikoa lan kontratua eta soldata aktore gazteen egunerokoan. Lan baldintza duinak izatetik urruti daude. Konpainia askok

ez dituzte entseguak ordaintzen. “Doan hilabete eta erdi lanean egon ostean ‘boloak’ ordaintzen dituzte”. Koldoren azken esperientzietako bat horrelakoa izan da. “Ikasten lan handia egin dut egun bateko ordezkapenerako”. Dirutan, lau hilabete beranduago, antzezpenagatik baino ez du kobratu. “Ramonek –Barea– guzti hori aldatu nahi zuen. Garrantzia eman nahi dio gazteen lanari. Konpainiari jarraipena ematea lortu du”. Epe laburrean jarriko da martxan gazte konpainiaren bigarren belaunaldia hamar bat gazterekin.

Izan du esperientzia onik ere. Esaterako, Demetrio Elorz zuzentzen ari den *Jokoaren arauak* laburraren errodajean. Besteak beste, oraingo honetan Segurantza Sozialean alta emanda dagoela nabarmentzen du. *Eskemak kentzen* (ETB-1) telesailean egin zuen lanari esker lortu du Eneko Sagardoy aktorearekin partekatuko duen protagonista papera. “Oso pozik” dago, “flipatzen”, lana kateatzeagatik eta “euskal aktore gazte onena” kontsideratzen duen Sagardoyrekin lan egiteagatik. Laburrari buruz gauza handirik ezin esan dezakeen arren, kamera aurrean tenisean jokatzeko entrenatzen ari dela aurreratu digu.

Koldo Olabarri Madrilen Arte Eszenikoak ikasten ari zen Itziar Lazkanok deitu zionean Patxo Telleriak idatzitako *Planteamiento, nudo y desenlace* obrako pieza antzezteko. Ondoren etorri dira *Romeo y Julieta* eta *Chichinabo cabaret*. Gustura dago deustuarra etxean “proiektuak” dauzkala eta. “Ahal badut nahiago dut hemen lan egin”, dio. Eta eskatzen hasita, jarri dezala “zorte oneko boladak”.



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

SOLOMOA *ORZA* ERARA *MOJO PICÓN* SALTSAREKIN

Ramon y Cajal kaleko Izeki tabernara jo dugu oraingo honetan. Pintxo aukera zabala eskaintzen dute Izekin, besteak beste, etxeko berezitasuna: bustinezko ontzi batean (orza) ondutako solomo xerrak Kanarietako mojo picón saltsarekin. Errezeta zahar honen prestaketa gaur egun asko erraztu da. Zorionez, bost minutan presta daiteke. Lehengaien kalitatea funtsezkoa da.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 5 minutu

Prezioa: 1,50€

Berezitasuna: zapore nahasketa

Kontu batzuk

Urtea beteko dute urrian Izeki taberna zabaldu zutenetik eta behar bezala ospatuko dute. Pozik daude Izekiko lagunak. "Deustuko jendea oso ondo portatu da gurekin", diote. Euro batean eskaintzen dituzten pintxoak (aukera zabala), garagardoak (25 marka) eta kafeak (Lavazza italiarra) dute arrakasta gehien bezeroen artean. Terrazan (6 mahai) edota barruan musika entzuten ("denetarik eta ona") lagun artean egoteko aukera dago Izekin.

Izekiko lantaldea: Arrate, Javi, Desi, Mikel, Boti eta Ander (argazkian Manu falta da)

IZEKI TABERNA

Ramon y Cajal 26 - DEUSTU

Astegunetan eta igandetan: 10:00-01:00

Jai bezpera, ostiral eta larunbatean: 10:00-02:30

Nola egin?

Txerria hiltzerakoan haragia kontserbatzeko modua izan da urte luzez solomo freskoa hainbat espezietan izatea astebetez, ondoren su txikian frijitzea bere koipetan edo oliba oliotan eta, azkenik, bustinezko ontzi batean (orza) godetzea leku fresko eta lehor baten luze iraun dezan. Jateko solomoa xerra finetan ebakitzen da.

Gaur egun *orza* erara prestatutako solomoa erosi egin daiteke.

Izekin etxean egindako *mojo picón* saltsa eransten diote. Jabiren izeko batek prestatua. Errazagoa eta bizkorragoa da janari dendaren baten *mojo* saltsa erostea. Nahi izanez gero piper saltsarekin ere goxo geratzen da.

OSAGAIAK

Solomoa
Oliba olioa
Mojo picón saltsa

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

BERTA ALCALDE ARRIZABALAGA

Editorea, irakurlea eta musikazalea

NETFLIX ETA UDAKO GOGOETAK

Aurrekoan, Netflixen *Gilmore Girls* ikusten hasi nintzen. Ama-alaba batzuen harreman zelebreari buruzko telesaila da, erraza, bizitasun handiko solasaldiz eta hitz-joko barregarriz jositakoa. Zerbait deigarria ere aurkitu nuen: protagonistaren lagun minak, Lane musikazaleak, hau esan zuen kapitulu batean: «Bee Gees taldearen disko hau erosi behar dut». Lagunak, harrituta, serioski ari zen galdetu zion, eta hauxe erantzun zion Lanek: «Tira, MOJO-k aipatzen du…». Hori esanda, listo! Ez dago eztabaidarik!

MOJO zer den? 1993an Erresuma Batuan sortutako musikari buruzko kritika-aldizkari bat. Ordutik sekulako entzutea lortu du eta 2000 urtean, *The MOJO collection*, *The greatest albums of all time* argitaratu zuen; hots, hil baino lehen entzun beharreko diskoen zerrenda bat (bai, Rolling Stones aldizkariaren *1.001 discos que escuchar antes de morir* bezalako zerbait). Jakina, *frikismoak* jota, liburua lortu behar izan dut. Lagunak, erakutsi nionean, bota zidan musika ezin dela sasi-aditu batek esandakoaren arabera balioetsi, norberaren gustuaren araberako artea dela, eta horrek debatea hasi du etxean.

Zaletasun handia dut musika estiloak, taldeak eta korronteak aztertzeko, eta erreferenteak izatea ezinbestekoa da niretzat (ni bezalakoa bazara, All Music webgunea oso lagungarria izango duzu). Era berean, musika objektibotasunez balioesteko moduko artea izan daiteke, araututako parametro batzuen arabera (erritmoa, kadentzia, afinazioa, estiloa…) neurtzen dugulako. Gero, bakoitzaren esperientzia dator, eta hor bai, erreferenteek eta nik uste duguna bat datorren ala ez, ikusiko dugu. Beraz, gaurkoan musika aztertzeko eta kritikatzeko tresna baliagarri batzuk dakartzat mahai gainera. Eta, bide batez, Netflixen surfeatzeko aukerarik baduzu, ez galdu! Sekulako erlikiak dituzu hor…

ENARE MUNIATEGI

Elorri bertso-eskolako kidea

HALAN DA BE GOGOZ HARTU

Irailean sartu gara
ta ez gara konturatu
baina eguraldi ona
bat-batin zaigu bukatu
gu ez gaitezen larritu
ta hau daigun kontuten hartu:
denbora ezin lei gelditu
baina bai aprobetxatu

Lan ta eskolan hasi biher
trista dau gure herria
halan da be gogoz hartu
daigun guk kurtso berria
horrela ahaztuz estura,
estresa eta larria
hankaz gora jarri daigun
errutina aspergarria

ERABILI EUSKARA BILBON

darabilbo

WWW.DARABILBO.EUS//////////////////AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOHAINIK

IPAR MARTXA

TRIKOTA

SUKALDARITZA

BILBOKO EUSKALTEGI SAREA

WWW.DARABILBO.EUS

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA

IRAILEKO EGITARAUA

IRAILAK 5 19:30 ASTELEHENERO BEZALA EUSKAL PRESOAK ETXERATZEKO LEHENENGO KONTZENTRAZIOA

IRAILAK 8 18:00 HERRI BATZARRA

IRAILAK 15 19:30 FUTBOLIN TXAPELKETA
(INSKRIPZIOA 2€ - SARIA: AFARIA HERRIKO TABERNAN)

IRAILAK 22 EUROKAÑA, EUROKALIMOTXO ETA EUROPINTXOEN HASIERA

IRAILAK 23 20:30 BIMAIKA KONTZERTU AKUSTIKOA
21:00 BOKATA ETA PLATER KONBINATUEN HASIERA

HEMEN eta ORAIN

DENON HERRIA

Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakarigaia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU ehbildu